

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIAKO UDALA

#### Barrundiako udaleko auzolanak ordenantzaren behin betiko onarpena ematea

Udal honek, 2020ko martxoaren 9ko osoko bilkuran, Barrundiako udaleko auzolanak arautzen dituen ordenantzaren espedienteari hasierako onarpena eman zion. Espediente hori jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartzen da. Beraz, argitaratzen da indarrean sar dadin.

#### Barrundiako udaleko Auzolanak Ordenantza

##### 1. Xedea

Ordenantza honek Barrundiako Udalak antolatzen dituen Auzolanak erregularizatzea eta definitzea ditu helburu.

##### 2. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, definizio hauek ezartzen dira:

2.1. Barrundiako auzotarrek eta egoiliarrek egindako obra edo jarduera da, udalaren ondasun bat eraikitzea, konpontzea edo mantentzea xede duena, edo haren erabilera edo zerbitzu publikorako esleituta dagoena.

2.2. Borondatezkoak dira, eta guztien onurari laguntzea dute helburu, elkartasuna eta auzo-harremanak sustatuz.

2.3. Auzolanetan honako jardunketa hauek burutu daitezke:

a) Udalerriko bide publikoak kontserbatu, konpondu, hobetu eta garbitzea, horiek osatzen dituzten elementu guztiekin.

b) Saneamenduak, estoldak, ur-sare eta instalazioak, lorategiak, iturriak, putzuak eta ikuztegiak konpontzea, hobetzea, garbitzea, mantentzea eta kontserbatzea.

c) Eraikinak eta espazio publikoak kontserbatzea, konpontzea, hobetzea, garbitzea eta mantentzea.

d) Landa-bideak, baso-bideak eta bidezidorrak irekitzea, konpontzea eta kontserbatzea.

e) Mendiak eta ibaiak garbitzeko, sastrakak kentzeko eta basoberritzeko lanak.

f) Erabilera publikoko azpiegiturak edo ekipamenduak eraikitzea.

g) Ekipamendu publikoaren narriadurak eta balizko hobekuntzak identifikatzea

h) Azpiegitura, garbiketa eta berezko beste zeregin batzuk antolatzea, muntatzea eta desmuntatzea, baldin eta jaiak edo ekitaldiak badira eta udalerrian egiten badira.

i) Udalerrriaren onurako beharrezkoa den beste edozein jardunketa.

##### 3. Deialdia

3.1. Auzolana bat egiteko deialdia Udaleko alkate-udalburuak egingo du, eta ekitaldi berean zehaztuko ditu egin beharreko lanak, eragindako lurralde-eremua, hasteko ordua eta lekua, amaitzeko ordua eta eraman beharreko tresnak.

3.2. Deialdiak bando bidez egingo dira, behar besteko aurrerapenarekin, eta iragarki-tauletan, web-orrian edo beste ohiko bitarteko batzuetan iragarriko dira.

3.3. Barrundian bizi diren pertsonak, banaka edo talde edo elkarteen bidez, auzolanak egitea proposatu ahal izango diote Udaleko alkate-udalburuari.

#### **4. Auzolanak egiteko modua**

4.1. Arau orokor gisa, auzolana hasteko adierazitako lekura eta ordura joanda egingo dira, eta bertaratutakoek egin beharreko prestazio motarako zehaztutako tresnak edo makinak izango dituzte.

4.2. Horretarako, auzolanen liburu ofizializatu bat eramango da, eta bertan adieraziko dira deialdia, honen xedea, bertaratutakoen kopurua, hasiera- eta amaiera-orduak, erabilitako tresnak eta horien jabea, bai eta prestazioan gertatutako gorabeherak ere.

4.3. Udalak pertsona bat izendatuko du (zinegotzia, udal langilea edo bizilaguna) auzolanak antolatu eta gauzatzeko, eta pertsonak eta baliabide materialak banatuko ditu, horiek garatzeko modurik egokienean. Obra konplexuago bateko lanen zati bat egin behar bada, arduradunak edo obra horren zuzendaritza teknikoa bere gain hartzen duenak Udalak izendatutako arduradunarekin koordinatuta jardun beharko du beti.

4.4. Adin nagusiko guztiek parte hartu ahal izango dute, bai eta 16 urtetik gorako adingabeek ere, arduradunen edo tutoreen baimenarekin.

4.5. Udalak auzolanetan parte hartzen dutenen babesa formalizatuko du, eta aseguru bat hitzartuko du istripu-arriskuak eta bertatik eratorritako gorabeherak estaltzeko.

4.6. Auzolanak egitea Udalaren eta horietan parte hartzen dutenen arteko lan-harremanetatik kanpo geratzen da berariaz.

Ozaetan, 2020ko urriaren 15ean

*Alkatea*

*IGOR MEDINA ISASA*